

**Saki**

# **Ipuin hautatuak**

**euskaratzailea: Rosa Miren Artola**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Rosa Miren Artola.

Euskarazko edizioa: Baroja, 1987

Jatorrizkoaren data: 1902-1920

Saki euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=167>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1630>

# Irasagarrondoa

«Betsy Mullen zaharra bisitatzen izan naiz oraintxe», esan zion Vera-k bere izeba Bebbberly Cumble-ri: «Bere errentari dagokionean egoera txar batetan dagoela dirudi. Hamabost aste inguruko errentak zor ditu eta esaten duenez ez daki dirua nondik bilduko duen».

«Betsy Mullen-ek beti ditu arazoak bere errentarekin, eta zenbat eta jende gehiagok horretan lagundu orduan eta arazo gutxiago ditu», esan zuen izebak. «Nik, benetan, ez diot inoiz gehiago horretan laguntzarik emango. Zera gertatzen da: etxe txiki eta merkeago batera joan beharko duela: herriaren bukaeran asko daude bera ordaintzen ari den, edo ordaindu behar lukeen errentaren erdiarekin alokatu daitezkeenak. Orain dela urtebete esan nion aldatu beharko litzatekeela».

«Baina ez du horretarako lorategi ederrik beste inon lortuko», arrapostu zuen Vera-k, «eta ertz batean irasagarrondo alai bat dago. Ez dut uste inguru osoan horrelako beste irasagarron-

dorik dagoenik. Eta berak inoiz ez du irasagar mermeladarik egiten; nire ustez irasagarrondoa eduki eta irasagar mermeladarik ez egiteak nor-tasun indartsua agertzen duela. Ene, behar bada ezinezkoa zaio berari lorategitik kanpora joatea».

«Batek hamasei urte dituenean», esan zuen Beberly Cumble andreak gogorki, «soilki higuingarriak diren gauzetaz ezinezkoak balira bezala aritzen da. Posiblea izateaz gain, komenigarria litzateke Betsy Mullen bizitoki txikiago batera aldatzea, ez du ia behar hainbat altzari etxe handi hori betetzeko».

«Balioa doan eran», esan zuen Vera-k epe motz baten ondoren, «inguru honetako beste edozein etxetan baino gehiago dago Betsy-ren etxe barrean».

«Txorakeriak», esan zuen izebak; «aspalditik zituen txinatar gauza guztiez banandu behar izan zuen».

«Ez naiz berea den ezertaz ari» esan zuen Vera-k misteriotsuki; «baina noski, zuk ez dakizu nik dakidana, eta ez dut uste esan behar nizukeenik».

Oraintxe bertan esan behar didazu» oihukatu zuen izebak, bere zentzuek arreta egoerara berehala jauzi egin zuten, Terrier txakurrek bat-batean nagikeria aspergarria utzi eta arratoi bat ehizatzerara pasatzen diren bezalaxe.

«Ondotxo dakit ez nizukeela ezertxo ere esan behar», esan zuen Vera-k, «baina hala ere, sarri egiten ditut egin behar ez nituzkeen gauzak».

Egin behar ez zenukeen zerbait egitera bul-tzatuko zintuzkeen azkenengo pertsona izango nintzatekeen ni», hasi zen Beberly Cumble andrea berataz espero ez zen eran.

«Eta ni beti kordokatua nago azkena hitz egi-ten didan pertsonarekin» onartu zuen Vera-k, «Beraz egin behar ez nukeena egingo dut eta esan egingo dizut».

Beberly Cumble andreak barkatzeko modu-koa zen hasperen sakon bat bota zuen bere pen-tsamenduen baitan eta egonezinik zera galdetu zuen:

«Zer dago ba Betsy Mullen-en etxean zuk horrelako nahaspiloa antolatzeke?».

«Gehiegikeria da nik horretaz nahaspilo bat egin dudala esatea», esan zuen Vera-k; «hau

baita arazoa aipatzen dudan lehen aldia, baina egunkarietan horrek sortaraziko arazo eta misterioak amaitu gabe daude. Prentsan uste txarrez bete diren orri eta orriak, eta poliziak eta detektibeek hemen eta atzerrian duten ehizaketan pentsatzea arras entretenigarria da, eta guzti honen bitartean itxura inuzentea duen etxetxo batek babesten du sekretua».

«Ez duzu esan nahiko, Louvreko koadro denik, *'Mona Lisa'* edo delakoa, irribarredun emakumearena, duela bi, urte desagertu zena?» esan zuen izebak goraka zihoan harriduraz.

«O, ez, ez da hori», esan zuen Vera-k, «baina hori bezain garrantzitsua eta misteriotsua den zerbait eta gainera zalapartatsuagoa».

«Ez da Dublin-ekoa izango?».

Vera-k buruarekin baietz egin zuen.

«Harribitxi bilduma osoa».

«Betsy-ren etxean? Sinestezina!».

«Noski, Betsy-k zer diren ideiarik ere ez du», esan zuen Vera-k; «berak, balio handiko zerbait direla eta horietaz isiltasun osoa gorde duela bakarrik daki. Nik kasualitatez jakin nuen zer ziren eta nola iritsi ziren hara. Badakizu, harra-

patu zituen jendeak ez zekien zer egin leku seguruan ezkutatu eta han mantentzeko. Norbait herri inguruan kotxez zebilenean ohartu zen etxetxoan bakardade erosoaz eta leku egokia izan zitekeela pentsatu zuen. Lamper andreak konpondu zuen arazoa Betsy-rekin eta gauzak ezkutupean sartu zituen».

«Lamper andrea?».

«Bai, badakizu berak herri inguruan bisita asko egiten dituela».

«Badakit jakiak eta jazkiak eta literatur hobe-kuntza ikastaroak ematen dizkiola jende behar-tsuari», esan zuen Bebbberly Cumble andreak, «baina horrek ez du lapurtutako gauzak leku-tzearekin antz handirik, eta berak gauza horiei buruzko historiaz zerbait jakin behar luke. Egunkariak kasualki bada ere, irakurtzen dituen edonor lapurketaz ohartuko da, eta harri bitxiak eza-gutzea zaila ez dela izango uste dut. Oso emakume zintzo eta ardurazkoa izatearen ospea izan ohi du beti».

«Noski beste norbait babesten ari zela», esan zuen Vera-k. «Arazo honetan gauzarik nabarmena zera da: beste batzuk babesten saiatzeko

zenbat jende agurgarri dagoen sartuta. Benetan txundituko zinateke arazo honetan nahastuta dauden zenbaitzuen izenak jakingo bazenitu, eta ez dut uste beraietako hamarren batek ere jatorrizko errudunak zeintzuk diren jakingo duenik; eta orain nik zu korapilatu zaitut etxetxoko sekretua zein den jakiten utzi dizudalako» .

«Zuk ez nauzu benetan korapilatu», esan zuen Beberly Cumble andreak haserreturik. «Nik ez dut inor babesteko asmorik. Poliziak berehala jakin behar du honen berri, lapur bat, lapur bat da, nahastua dagoena, nahasturik egonik. Pertsona agurgarriek buelta hartzea erabaki badute lapurtutako gauzen hartzaile eta babesle gisa; ondo da agurgarri izateari utzi diote, hori da guztia. Oraintxe bertan telefonoz deitzera noa».

«Ene, izeba», esan zuen Vera-k gaitzesle, «honek Cannon zorigabekoaren bihotza erdibituko luke, Cuthbert horrelako iskanbilan nahastuta azalduko balitz. Badakizu horrela izango litzatekeela».



«Cuthbert nahastua! Nola esan zenezake horrelako gauza bat guztiak bera zein estima onean dugun jakinda?».

«Noski badakidala zenbat estimatzen duzuen eta baita Beatrice-rekin ezkontzeko hitz emanda dagoela ere, ikaragarritzko kolpea izango litzatekeela, eta baita zuretzat suhi batek izan behar duenaren eredia betetzen duela. Dena den, Cuthbert-en burutapena gauzak etxetxoan ezkutatzea izan zen bere kotxeak ekarri zituen gauzak, hain zuzen. Bere adiskide Pegginson laguntzeko egin zuen soilik, badakizu, kuakeroa dena, beti itsasontzi txiki batetarako istiluak sortzen ari dena. Ez dut gogoratzen auzi honetan nola sartu zen. Bertan nahastuta jende agurgarri asko zegoela ohartarazi zintudan, ezta? Betsyrentzat etxetxoa uztea ezinezkoa izango zela esan nizunean. Harribitxiek gelaren zati handi bat hartzen dute eta Betsy-k ezingo lituzke ezta altzarien artean eraman besteen begirada bereganatu gabe. Noski bera hiltzekotan balego, zorte txarrekoa izango litzateke. Betsy-k esan zidanez, bere ama laurogeita hamar urte baino gehiago

bizi izan zen, beraz, zainduaz eta kezkarik jasan gabe, beste dozena bat urte iraun dezake gutxienez. Denbora horretan konponketaren bat egin daiteke zoritxarreko gauza horiekin».

«Ezkontza ondoren hitz egingo dut Cuthbertekin gauza honetaz», esan zuen Beberly Cumblek.

«Ezkontza ez da datorren urte arte» esan zion Vera-k bere lagun begikoenari istorioa berkontatzerakoan, «eta bitartean Betsy zaharra dohain bizitzen ari da, astean bitan zopa hartzen du eta nire izebaren sendagilea joaten zaio behatzeko mina badu ere».

«Baino nola demontre lortu zenuen guzti nori jakitea?» galdetu zion bere lagunak miresturik.

«Misterio bat izan zen», esan zuen Vera-k.

«Noski misterio bat izan zela, guztiak nahasten zituen misterio bat. Hunkitzen nauena zera da: Nola jakin zenuen».

«A! Harribitxiei buruzkoa? Zati hori asmatu egin nuen» azaldu zuen Vera-k, «nik esan nahi nuen misterioa Betsy-ren errenta atzerapenak

ordaintzeko dirua nondik zetorren zen; eta berak asko sentituko zukeen irasagarrondo alaia uztea».

# Ameslaria

Merkealdi garaia zen. Abuztuan, Walpurgis eta Nettlepink izeneko dendan salneurriek behera egin zuten aste oso batez merkataritza legeak betetzearren, dukesa batek baino gehiagok jasaten zuen gripe erasoaldia garai honetan, gripea onartua baitzegoen aitzakia gisa. Adela Chemping-ek bere burua merkealdi maukek zuten erakargarritasunaren gainetik jotzen bazuen ere, Walpurgis eta Nettlepink dendako errebatutako asteari arreta jarri zion.

«Ni ez naiz beherapenzale amorratua», esan zuen, «baina beherapenak dauden lekuetara joatea atsegin dut».

Honek erakusten zuen bere azaleko nortasun indartsuaren azpian giza ahuleziaren bitxikeria ezkutu bat bazuela.

Gizonezko eskolta bat edukitzearren Chemping andreak bere iloba gazteena gonbidatu zuen bere erosketa-txangoko lehen egunera, erakargarritasun gisa zineman jartzen zuten teatro bat eta edari freskoen adierazki bat gehitu

zituelarik. Cyprian artean hemezortzi urteko mutil kozkor ez zenez, Chemping andreak, Cyprian ez zela bilakaeran erosketetan poltsaz beterik ibiltzea lotsagarri mailara iritsi espero zuen.

«Lore sailaren aurrean aurkituko gara», idatzi zion Cyprian-i, «eta ez zaitez hamaikak baino minutu bat ere beranduago iritsi».

Cyprian, gazte-gaztetatik aztertzaile begirada zekarren mutil bat zen, hilkor arruntentzat ikusezinak ziren gauzak ikus zitzakeen begidun mutila eta mundu honetako leku arruntetako gauzei kualitate sinestezinak ematen zizkien poeta edo etxe saltzaile baten begiak. Kontu handiz jantzita zegoen, eskuarki idazleek ama alargun baten eraginaren ondorioz gaztetxoak sarritan jazten duten dotoretasun lasaiaz. Ilea leuntasunez atzeraka orraztuta zeraman, ihes egin behar zuela zirudien marra estu-estu batekin. Bere izeba honetaz ohartu zen aurkitu zirenean Cyprian bere zain kapelarik gabe zutik baitzegoen.

«Non da zure kapela?» galdetu zion.

«Ez dut nirekin ekarri» erantzun zion.

Adela Chemping bere onetik atera xamar zegoen.

«Ez zara «arlote» deritzaien horietako bat izango ezta?» galdetu zuen irrikiz. Alde batetik bere ahizparen etxean zuzenetsi zitekeen xelebrekeria bat zelako eta bestetik «arlote» batek hasierako bilakaeran egonda ere poltsak garraiatzeari uko egin ziezaiokeen beldurrez.

Cyprian-ek bere begi aztertzaile ameslariekin so egiten zion.

«Ez dut kapelarik ekarri» esan zuen, «ez delako erosoia erosketak egiteko, zera esan nahi dut: ezaguna den norbait ikusi ezkerro eta eskuak poltsaz beterik eduki ezkerro, oso baldarra gertatzen delako. Kapelik ez baduzu, ezin duzu erantzi».

Chemping andreak lasaitasunez hasperen egin zuen; bere beldurrik nagusiena uxatua zuen.

«Zuzenagoa da kapela eramatea,» esan zuen eta zuzenean eskuartean zeuzkanaz arduratzen hasi zen gogoz.

«Mahaizapi sailera joan behar dugu lehenik», esan zuen bidea seinalatuaz. «Mahaizapi batzuk ikusi nahi ditut».

Cyprian-en begirada aztertzailea sakonagotu egin zen bere izebari jarraitzen zion eran; orokorrean begirale soil papera onartua dutela suposatzen den belaunaldikoa zen, baina erosteko asmorik eduki gabe mahaizapiei begira egotea bere ulermenak eman ziezaiokeen plazerra baino harantzago zegoen. Chemping andreak mahaizapi pare bat altxa zituen argitara eta arreta handiz begiratu zituen. Tinta biziz idatzitako zenbaki sinesgaitz bat aurkitzea espero baitzuen; bat-batean dena utzi eta beirategi saile-rantz abiatu zen.

«Millicent-ek pitxar pare bat erosteko eskatu dit, hauek benetan merkeak baldin badaude», azaldu zion bidean, «eta nik benetan ensalada-ontzi bat nahi dut. Mahaizapietara beranduago itzul naiteke».

Pitxar kopuru handia eta ensalada-ontzi mordo bat hartu zituen eskuetan eta zorrozki begiratu ere, azkenean zazpi ur-lili loreontzi erosi zituen.

«Inork ez ditu gaur egun loreontzi hauek erabiltzen», azaldu zion Cyprian-i, «baina hurrengo gabonetarako opariak izango dira».

Chemping andreak taxugabe merketuak, baina artean ere merkeagoak zeuden bi eguzki babeslez handitu zituen erosketarako poltsak.

«Bietako bat Ruth Colson-entzat izango da; Malasiara joatekoa da eta han eguzkitakoa beti izango zaio erabilgarria. Eta idazteko paper fina ere lortu behar diot. Ez dute lekurik betetzen bidefardelerian».

Chemping andreak idazteko paper meta bat erosi zuen; oso merkea zen eta bidefardelerian enbor baten gisara joango zen. Gutunazal batzuk ere erosi zituen, idazteko paperen ondoren nahiko xelebreak ziruditen gutunazalak.

«Zer uste duzu nahiago izango duela Ruth-ek paper urdina ala grixa?» galdetu zion Cyprian-i.

«Grixa» esan zuen, andre hura inoiz ikusi ez zuen Cyprian-ek.

«Kalitate honetako malba koloreko idazteko paperik ba al duzue?» galdetu zion Adela den-dariari.



«Malba kolorean ez dugu horrelakorik», esan zuen dendariak, «baina bi berde desberdinetakoak eta grix ilunekoak ditugu».

Chemping andreak berdeak eta grixak aztertu zituen eta urdina aukeratu zuen.

«Orain bazkal genezake», esan zuen.

Cyprian-ek ereduak modara jokatu zuen edari freskoen sailean eta pozik hartu zituen arrain pastel, budina eta kafe katilu txikia erosketa bi ordu ondorengo suspergarri egoki bezala. Dena den tinko mantendu zen izebaren kapela erostearen sugerentzia aurrean uko egitean. Kapelak gizonezkoentzako buru janzki sailean oso merke zeuden.

«Etxean nahi ditudan adina kapela ditut» esan zuen «eta gainera kapelak probatzeak ilea harrotu egiten du».

Azkenean behar bada Cyprian «arrote» bat bihurtuko zen. Zantzu kezkarria zen erositako gauza guztiak gauza zaintzailearen esku utzi izana.

«Orain sail berriak ikustatzera goaz», esan zuen, «beraz ez dugu hauek gurekin garraiatu beharrik gure erosketak amaitu arte».

Bere izebari ez zitzaion gehiegi gustatu; dena den, erosketak egitearen plazerik handiena joan egiten da bere erosketekin duen harreman estua galtzen denean.

«Berriro ere mahaizapi horiek begiratzera noa», esan zuen beheko solairuko eskailerak jaisten zituen eran. «Ez duzu nirekin etorri beharrik», gehitu zuen mutilarengandik sortutako begirada ameslaria protesta mutu batetan eraldatzen zen eran. «Geroago mahaihorni sailean aurkitu zintezke nirekin; oraintxe gogoratu dut etxean ez dudala erabiltzeko modukoa den ginjalet bakar bat ere».

Cyprian ez zegoen mahaihorni sailean izeba bere bila hara iritsi zenean, baina erosle larrien eta saltzaile lanpetuen joan etorri zapaltzaile hartan oso erraza zen edonor galtzea. Ordu laurden bat beranduago Adela Chemping-en ikusmenak harrapatu zuen bere iloba larruzko gauzen sailean, erostetxe handi haren txoko guztiak erasotzen zituen jendearen zurrunbada bultzatzaile hark bere izebarengandik baztertzen zuen. Izeba, barkatzeko modukoa zen baina hala ere nahiko lotsagarria zen nahasketa baten lekuko

izateko zorian zegoen; emakume batek kapelagabeko Cyprian besotik heldua zuen eta ez askatzea tinko erabakia zuela antzematen zitzaion, eta asko gustatu zitzaion poltsa baten salneurria arnas gabe galdetzen ari zitzaion.

«Hara», esan zion Adela-k bere buruari, «Cyprianek kapelarik ez duelako, andreak saltzailtzat hartu du. Lehenago gertatu ez ote den jakin nahi nuke».

Beharbada gertatu zen. Dena den, Cyprianek ez zirudien batere trabatua zegoenik andreak egin zuen akatsarekin. Poltsak zuen txartela aztertu ondoren grinagabeko ahotz argiz horrela esan zuen:

«Hogeita hamalau txelinetako ohizko salneurria, hogeita zortzira merkatua. Hain zuzen ere, beherapen berezi bat ezarri diogu salneurriari, hogeita sei txelinetan dago orain. Oso azkar saltzen ari da».

«Erosten dut», esan zuen andreak, lehiatsuki bere karteran txanponak bilatuz.

«Dagoen bezala eraman al zenezake?» galdetu zuen Cyprian-ek; biltzea, zenbait minututa-

ko arazoa izango litzateke, «Horrenbeste jende dago».

«Ez zaitez kezkatu, dagoen bezala eramango dut», esan erosleak bere altxorra hartu eta Cyprian-en eskuan utzitako diru kopurua zenbatuaz.

Zenbait pertsona atseginek lagundu zuten Adela kanporaino.

«Jendetza eta beroagatik izan da», esan zion batek beste bati; «edonor zorabiatzeko aski dira».

Chemping andrea berriro Cyprian-engana itzuli zenean, hau liburu saileko kaxa inguruan zegoen, jendetza bultzalariaren artean zegoen. Bere begirada ameslaria inoiz baino sakonagoa zen bere begietan. Deboziazko bi liburu saltzen ari zen adineko kalonje bati.

# Clovis eta gurasoen erantzukizunak

Marion Eggelby Clovis-en ondoan eseri zen, berari gehien gustatzen zitzaion gaiaz hitz egiteko —bere ondorengo eta beraien talentu eta bikaintasun anitzez—. Clovis ez zegoen entzule adikor dei genezakeen egoeran; Eggelby-darren belaunaldi gazteenak, eta beretaz bere amak egingo zuen apainduraz beteriko deskribapenak, ez zuen bere irrika pizten. Bestalde, Eggelby andreak bientzat adina gogo zuen.

«Eric gustatuko litzaizuke», esan zuen itxaropenez baino arrazoimen gehiagoz. Clovis-ek Amy eta Willie ezagunak zituen eta nabarmena zen ez zitzaizkiola batere atsegin. «Bai, ziur naiz gustatuko zaizula, ezagutu ahala guztiei begikoa egiten zaie. David gaztearen ospe handiko koadro hura gogoratzen dit beti, koadroa norena den ahaztu dut, baina oso ezaguna da».

«Esan duzuna nahikoa izango litzateke ni bere aurka jartzeko, asko ikusiz gero behintzat», esan zuen Clovis-ek. «Imajina ezazu, esate bate-

rako, bridge-partida bat. Bat erabat kontzentratua dago, bai bere bikoteak hasieran esan duena gogoratzen eta baita ere aurkakoak hasieran bota dituzten kartak gogoratzen. Zer izango litzateke David gaztearen koadroa gogorarazten duen norbait etengabe parean edukitzea? Erotzeko modukoa besterik gabe. Eric balitz gorrotatu egingo nuke».

«Eric-ek ez du bridgean jokatzeko», esan zuen Egelby andreak duintasunez.

«Ez al du jokatzeko?» galdetu zuen Clovis-ek; «Zergatik ez?».

«Nire haur bakar bati ere ez zaio kartatan jokatzeko erakutsi» esan zuen Egelby andreak; «damak eta xake jokoak dira nik adoratzen dituzdan joko motak. Eric damatan oso jokalaria ontzat daukate».

«Zure familia bide arriskutsuan jartzen ari zara», esan zuen Clovis-ek «gartzelako apezpe den nire lagun batek esan zidan, berak ezagutu dituen gaizkile okerrenen artean, heriotza zigorra zutenak edota gartzelan denbora luzez egoteko zigorra zutenak, ez zirela bridgean jokalaria soilak. Baizik eta hain zuzen ere, gutxienez

damatan bi jokalari ezagutu zituen motahorreta-ko gaizkileen artean».

«Egia esan nik ez dut ikusten nire mutikoez gaizkileekin zerikusia dutenik», esan zuen Egelby andreak minbera. «Arreta handiz heziak izan dira, hori nik ziurta diezazuket».

«Zer bihurtuko ziren beldur zinela frogatzen du horrek», esan zuen Clovis-ek. «Nire ama berriz, inoiz ez zen kezkatu ni nola heztearekin. Berak itxaron egiten zuen eta noizbehinka jo egiten ninduen eta gaizki zegoenaren eta ongi zegoenaren arteko desberdintasuna badago, zuk badakizu, baina nik ahaztu egin dut».

«Ona eta txarraren arteko desberdintasuna ahaztu» oihukatu zuen Egelby andreak.

«Beno, konturatu zaitez, Natur historia eta beste gai asko denbora berean ikasi nituen, eta batek ezin du guztia gogoratu, ala bai? Lehen Cerdeñako muxarra eta muxar arrunta berezi ohi, nituen, eta usapalak gure itsas bazterretara kukuak baino lehenago etorri ohi zirela, bestalde banekien baita ere itsasbehiek heldu arora iristeko behar zuten denbora; Eta zuk ere garai batean gauza hauek bazenekiela esatera ausar-

tzen naiz, baina egun ez dituzula gogoratzen baieztatuko nuke».

«Gauza horiek ez dira garrantzitsuak», esan zuen Eggelby andreak, «baina...»

«Gu biok gauza horiek ahazteak berak frogatzen du garrantzitsuak direla» esan zuen Clovis-ek, «ohartu behar zara, ahazten direnak, beti, garrantzizko gauzak izaten direla, bizitzako txolinkeriak aldiz, inolako beharrik gabe gelditzen dira gogomenean. Hor dago nire lehengusina Editha Clubberly, esate baterako: Inoiz ez dut bere urtebetetze-eguna ahazten. Ez zait batere axola bere urtebetetzekoa noiz den, ezta jaio zen ala ez ere. Biak lehen senarra kontrabandista zela eta negozio erregela zuntzunei buruzko elkarrizketak hasten ditut berehala. Bidaiak ere ezin dira aipatu, bere bigarren senarrak beti atzerrian bizi beharra baitzuen».

«Shrublely andrea eta ni ez gara giro berdinetan ibiltzen», esan zuen Eggelby andreak aho-pean.

«Hildegarde ezagutzen duen inork ezin dio giro zehatz batetan ibiltzea leporatu» esan zuen Clovis-ek; «Bere bizitza ikuspuntuak gera ezina



den lasterketa bat dirudi, lasterketarako gasolina abastu bukaezina duelarik. Gasolina ordain dezakeen norbait aurkitu ahal izanez gero, askoz hobeto. Gogora dezakedan beste edozein emakumek baino askoz gehiago erakutsi diodala aitortzea ez zait axola».

«Zein jakintza mota?» galdetu zuen Egelby andreak, epaile batek, zigorra erabakitzeko artoa utzi baino lehen hartu duenean, hartu behar lukeen antzeko itxurarekin.

«Beno, beste zenbait gauzen artean, otarraina prestatzeko gutxienez lau modu desberdin erakutsi dizkit», esan zuen Clovis-ek esker onez. Noski, honek zuri ez dizu ezer handirik esango; kartatan jokatzearen plazeraz at daudenek ezin dute benetan jakiek dituzten posibilitate guztien plazerra dastatu. Pertsona horien plazererako ahalmena ez erabiltzeagatik atrofiatua dago».

«Nire izeba bat otarraina jan ondoren hil zen», esan zuen Egelby andreak.

«Bere historia jakingo bagenu, otarraina jan baino lehenago gaixorik sarri egoten zela konturatuko ginatkeela esatera ausartzen naiz. Ez al zara, otarraina jan aurretik zure izebak gorria,

katarroa, nerbioek eragindako buruko mina, historia eta beste zenbait gaixotasun zituela, ezkutatzen ari? Egun bateko gaixotasunik izan ez duen izebarik ez dago. Egia esan, nik neuk ez dut bakar bat ere ezagutzen. Noski, otarraina bi hilabetetako haur batek jango balu bezala jan bazuen, hura izango zen bere lehen gaixotasuna. Baita azkena ere. Baina horrela izan bazen, zuk esan behar zenukeela uste dut».

«Erotzen ari ote naiz» esan zuen Eggelby andreak, azaleko damuak ere gaintitu dituenaren doinuan.

Axolagabe itxuran altxa zen Clovis.

«Oso ondo pasa dut Eric-ez egin dugun solasean», esan zuen; «hurrengo batean berarekin topo egiten ahaleginduko naiz».

«Agur», esan zuen Eggelby andreak hotz-hotz; bere baitan egin zuen komentarioa aldiz, honoko hau izan zen:

«Ni arduratuko naiz egin ez dezazun».

# Larruzko estola

«Urduri zaudela dirudi, laztana», esan zuen Eleanor-ek.

«Urduri nago, bai» onartu zuen Suzanne-k; «urduri baino gehiago, kezkatu. Begira, nire urtebetetzea datorren astean da».

«Zorte onekoa zara» eten zion Eleanor-ek; «nirea ordean ez da martxoaren bukaera arte iritsiko».

«Gatozen harira, Bertram Kneyght zaharra, Argentinatik Ingalaterrara itzuli berria da. Bera, nire amaren urrutiko lehengusu horietako bat da, eta oso aberatsa denez, inoiz ez ditugu harremanak erabat moztu. Urteetan ez baduzu ez ikusten ez berataz ezer entzuten ere, itzultzen denean bera beti Bertram lehengusua da. Ez dezaket esan gutaz asko ardurazten denik, baina dena den atzo nire urtebetetzearena aipatu genuen eta oparitzat beregandik zer jaso nahi nukeen galdetu zidan».

«Ondo ulertzen dut orain kezkatu egotea» adierazi zuen Eleanor-ek.

«Orokorrean, horrelako arazo baten aurrean» esan zuen Suzanne-k, «ideia guztiak aienatu egiten dira; badirudi ez dudala mundu honetako ezertxoren desirarik. Oraintxe arte Kensingtongo dendaren batean ikusi nuen hogeita hamasei txelinetako portzelanazko irudi txiki baten atzetik nenbilen. Bertram-i irudia nolakoa zen eta non aurki zezakeen kontatzeko prest nengoela ohartu nintzen hogeita hamasei txelinetako oparia arras xelebrea eta ez-egokia zela horrenbeste dirutza duen gizon bati eskatzeko. Berak hogeita hamasei libra zuk edo nik lore sorta bat eros dezakegun bezain erraz eman diezadake. Ez nuke nahi bere diruaren gose naizela pentsatzea ez eta parrastatzailea ere».

«Arazoa zera da»: esan zuen Eleanor-ek, «zer pentsatzen du berak opariak egiteari buruz? Pertsona aberatsenetako batzuk guztiz zekenak dira gai hori dagokionean. Mailaka aberasten joaten direnean beraien eskakizun eta bizitza patroiak era berean handitzen dira, opari egitez zentzua aldiz sarritan, beraien lehenengo urteen egoeran mantentzen den bitartean. Ereduzko oparia handimandia eta ez garestiegia izaten

delarik. Horregatik kalitate oneko dendek ere, lau txelin balio duten eta sei edo zazpi balio duten itxura duten opariak, hamar txelinetara jartzen dituzte, «urte garaiko opariak» dioten txartelekin. Horretako opariz gainezka egoten dira erakusleihu eta apal guztiak».

«Badakit» esan zuen Suzanne-k «horregatik da arriskugarria, batek nahi duena adieraztekoan zehatza ez izatea. Zera esaten badiot: «Davos-era noa aurtengo neguan, beraz bidaiarako egokia den edozer ondo legoke» urre koloreko irudiak dituen bidai zorro bat edo antzeko zerbait opariko lidake».

«Edo zera pentsatuko luke: Dantzaldi askotara joango denez abaniko bat erabilgarria izango luke».

«Bai, eta ehundaka abaniko ditut, beraz ikusten duzu arriskua eta kezka non dautzan. Une honetan beste edozer baino lehenago benetan behar dudana, larruzko lepoko bat da. Ez daukat bat bakarrik ere. Esan didatenez Davos, errusiarrrez beteta dago eta jakina da errusiarrak material horretako jaskiz estaltzen dutela gorputza. Batek larruzko ezer ez duenean eta horrelako

jende artean dagoenean gizarte araudiak eteten ditu».

«Larruzko lepokoaren atzetik bazabiltza», esan zuen Eleanor-ek «zerorrek aukeratu beharreko gauza da. Ezin duzu jakin zure lehengusua zilar koloreko axeri larrua edo urtxintxa arruntarena bereizten dituen».

«Goliath and Mastodon-s dendan zilar koloreko axeri larru zoragarriak daude» esan zuen Suzanne-k pentsati. «Bertram denda horretan sartzea lortuko banu eta larru sailetarantz eram!».

«Denda horren inguruan bizi da, ezta?» esan zuen Eleanor-ek. «Bere ohiturak ezagutzen al dituzu? Ordu zehatz batean irteten al da paseatzera?».

«Hirurak inguruan joaten da bere biltokira oinez eguraldi ona egiten duenean. Denda bide horretan dago».

«Bihar kale ertz horretan topo egin genezake berarekin ustekabean» esan zuen Eleanor-ek «berarekin abiatu gintezke eta zorte pixka bat izanez denda barrura desbideratu genezake zure lehengusua lotarako buru saretxo bat edo beste

zerbait behar duzula esanaz eta ondo barruan gaudenean nik zera esan dezaket: «zure urtebetzerako zer nahi duzun esatea nahi nuke». Orduan zuk dena prest edukiko duzu zure lehen-gusu aberatsa larru sailera eraman eta opari-gaiak erakusteko».

Ezin hobea ideia hori», esan zuen Suzanne-k, «oso azkarra zara. Hirurak hogei gutxitan etorri zaitez bihar; ez berandutu, dena ondo joan dadin gure segada zehatz mehatz prestatu behar dugu».

«Hurrengo arratsaldean hiruretarako minutu gutxi geratzen zirenean, larru harrapatzaileak, maltzur-maltzur zeuden aukeratutako ertzean. Arratsalde zoragarria zen, adineko gizon bat ibiltzeko zirrara sortzeko benetan eguraldi aproposa».

«Adizu, laztana, niretzat zerbait egitea nahi nuke gaur arratsean» esan zion Eleanor-ek bere adiskideari; «edozein aitzakiarekin gure etxera etorri eta Adela eta bere izebekin bridge-an jokatu. Bestela nik jokatu beharko dut, Harry Scarisbroke ustekabean etortzekoa da bederatziak eta laurden inguruan eta nik berarekin hitz egin ahal

izateko aske egon nahi nuke besteak jokatzeko ari diren bitartean».

«Barkatuko didazu maitea baina ezin dut» esan zuen Suzanne-k «bridge arruntean zure izebak bezain jolaskide motelekin jokatzeko erabat aspertzen nau, lokartzeko zorian jartzen nau».

«Baina nik Harry-rekin hitz egiteko aukerabat behar dut» premiatsu zuen Eleanor-ek begietan haserre distira pizten zitzaiolarik.

«Barka nazazu, eska iezadazu edozer gauza hori ezik» esan zuen Suzanne-k alai; adiskideei laguntzeko egin beharreko eskakizunak maitagarriak ziren bere ustez, betetzea eskatzen ez zitzaizkion bitartean.

Eleanor-ek ez zuen ezer gehiago esan gaiari buruz, baina ezpain ertzek nahikoa adierazten zuten.

«Hemen da gure gizona» oihukatu zuen Suzanne-k bat-batean; «E!».

Atseginez agurtu zituen Bertram Kneyght jaunak bere lehengusu eta honen adiskidea eta gogo onez onartu zuen jendez gainezka zegoen denda handi hartara sartzea. Beirazko erosle ate artera.



«Gaur bezain jendeztatua egoten al da beti?» galdetu zion Bertram-ek Eleanor-i.

«Gutxi gora behera, gainera udazkeneko merke aldia da orain» erantzun zion.

Suzanne-k, bere lehengusua larru sailera gidatzeko zuen desira artegatsuarekin, beti ere besteak baino aurrerago zegoen, eta sarritan itzultzen zen beraiengana, hauek edozein gauza erakargarrirengatik atzeratzen baldin baziren. Lehenagoko aldiz hegan hasten diren txorikumeak beraien guraso lehiatsuak zaintzen dituzten bezala itzultzen zen Suzanne.

«Suzanne-ren urtebetetzea da datorren ostegunean» esan zion isilka Eleanor-ek Bertram Kneyght-i, Suzanne-k atzean utzi zituen batean; nire urtebetetzea, berearen aurreko egunean da, beraz bakoitzarentzat zerbaiten bila gabiltza».

«Ah» esan zuen Bertram-ek, «beraz, agian niri ere aholkuren bat eman diezadakezu gai honetan. Suzanne-ri zerbait opari nahi nioke baina ez dut berak nahi duenaz arrastorik ere».

«Suzanne arazo bat da» esan zuen Eleanor-ek. «Batek burura dezakeen guztia baduela dirudi, zorteoneko neska. Dena den, abaniko bat beti

da erabilkorra; dantzaldi askotara joango da aurtengo neguan Davos-en. Bai, abaniko bat beste edozer gauza baino atseginagoa izango du. Guk urteak bete ondoren bakoitzaren opariak ikuskatzen ditugu eta beti oso apal sentitzen naiz. Oso opari ederrak jasotzen ditu eta nik inoiz ez dut erakusgarria den ezer jasotzen. Nire adiskide edo opariak egiten dizkidatenetik bakar bat ere ez da diruduna inolaz ere, beraz beraiengatik ezin dut espero gogoratzea eta huskeriaren bat oparitzea besterik. Duela bi urte nire amaren aldeko osaba batek, herentzia bat jaso zuen batek, nire urtebetetzerako zilar koloreko axeri estola bat agindu zidan. Ezin dizut azaldu zein pozik nengoen, nire adiskide eta etsaien aurrean nola azalduko nintzen imajinatzearekin. Eta orduantxe bere emaztea hil egin zen, eta noski, gizon gixajoa aldi hartan ez zegoen urtebetetzerako oparietan pentsatzeko. Ordundik atzerrian bizi izan da eta inoiz ez dut larrua edukitzerik lortu. Ulertuko duzunez urtebetetze inguruko egun hauetan ezin dut zilar koloreko axeri larrua dauden erakusleihorik edo lepo baten inguruan dagoen bati begiratu negarrez hasteko gogo

sentitu gabe. Pentsatzen dut garai batetan horrelako bat edukitzea hain gertu izan ez banu, egun ez nintzatekeela horrela sentituko. Begira, hemen dago abanikoen salmahaia. Zure ezkerretara; jende artean erraz ahaztu eta ezkutatu-ko zara. Ikusten duzun politena eros iezaiozu, oso neska maitagarria da eta».

«Kaixo, galdu zintuztedala pentsatu dut» esan zuen Suzanne-k, bere bidean saltzaileei trabak jarriaz. «Non dago Bertram?».

«Aspaldi banandu naiz berataz. Zurekin zegoela pentsatu dut» esan zuen Eleanor-ek. «Inoiz ez dugu jende tarte honetan aurkituko».

Egia izan zen.

«Gure arazo eta deliberamendu guztiak pikutara» esan zuen Eleanor-ek; «bere ondoan mantenduko nintzen gehiago ezagutu izan banu, baina aurreztatu berriak ginen. Laurak jotzera doaz, hobe dugu tea hartzera joatea».

Egun batzuk beranduago Suzanne-k Eleanor-i telefonoz deitu zion.

«Mila esker argazki markuarengatik, horixe bera zen nahi nuena. Oso ondo asmatu duzu. Ba al dakizu zer opari didan Kneygt-ek? Zuk uste

zenuena; eskuzko abaniko ziztrin bat. Zer? Bai kalitate onekoa bai, baina...»

«Niri zer opari didan ikustera etorri behar duzu» esan zuen Eleanor-ek telefonoz bestalde.

«Zuri! Zergatik opari behar zizun zuri zerbait?».

«Dirudienez zure lehengusua, besteei opari bikainak egiteak plazera ematen dion aberats horietako bat da» izan zen erantzuna.

«Harritu nintzen bai ni, zergatik ote zuen nire lehengusuak Eleanor non bizi zen jakiteko horrenbesteko interesa» esan zion Suzanne-k bere buruari eta telefonozko elkarrizketa moztu zuen.

Laino beltz bat sortu zen bi emakume gazteen arteko adiskidetasunean; Eleanor-i zegokionean, lainoa, zilar koloreko axeri estola bat zen.

# Gabonetako opariak

«Idatzi al diezu Flopinson-darrei bidali ziguten oparia eskertzeko?» galdetu zuen Egbert-ek.

«Ez» esan zuen Janetta-k, ahotsean desafio doinu bat zuelarik; «ustekabeen harrapatua izana eta esker ona azaltzen zuten hamaika gutun idatzi ditut gaur, guzti hori merezi ez duten zenbait opari eskertzeko, baina ez diet Flopinson-darrei idatzi».

«Norbaitek idatzi beharko die» esan zuen Egbert-ek.

«Ez dut beharrezkoa den ala ez eztabaidatuko, baina ez dut uste idatzi behar duen norbait hori ni izan behar naizenik» esan zuen Janetta-k, «zenbait aukerako ontzi eskertuz, haserrezko edo bihozgabeko satira doinuzko gutun bat idaztea ez litzaidake axolako; hain zuzen ere gustura egingo nuke; baina begikotasun lausengarria azaltzeko ahalmena agortu egin zait. Hamaika gutun gaur, bederatzi atzo, denak esker on aire berdinean, benetan ez duzu nahiko, ni beste bat

idaztera esertzea. Bat hustea bezalaxe da horrenbeste idaztea».

«Nik ere beste horrenbeste idatzi ditut gutxi gora behera» esan zuen Egbert-ek, «eguneroko laneko gutunak idazteaz gain. Gainera ez dakit zer den Flopinson-darrek bidalitakoa» «Guillermo konkistatzailearen estampa duen egutegia», esan zuen Janetta-k, «urteko egun bakoitzerako bere pentsamendu bikain bat dakarkielarik».

«Ezinezkoa» esan zuen Egbert-ek, «Berak ez zituen hirurehun eta hirurogeita bost gogapen bikain izan bere bizitza osoan, edo izan baldin bazituen ere, beretzako gorde zituen. Ekintzez betetako gizona izan zen eta barne pentsamenduei emana».

«Ondo da, orduan «Guillermo hitz ederrekoa» izango zen», esan zuen Janetta-k; «Badakit Guillermo izena nonbait azaltzen zela».

«Hori bai, izan daiteke» esan zuen Egbert-ek; «beno, egin dezagun eskerroneko gutun hori elkarrekin. Nik esango dizut eta zuk idatzi egingo duzu. Flopinson andre maitea, mila esker bai zuri eta bai zure senarrari, bidali zeniguten egu-

tegi politagatik. Oso atseginak izan zarete gutaz gogoratzean».

«Ezin duzu hori esan» esan zuen Janetta-k boligrafoa bertan behera utziaz.

«Hori da nik beti esaten dudana eta guztiek niri esaten didatena» kontra eginez esan zion Egbert-ek.

«Guk hogeita bian bidali genien oparia» esan zuen

Janetta-k «beraz gutaz gogoratu beharra izan zuten. Ezin zuten horregatik ihes egin».

«Zer bidali genien?» galdetu zuen Egbert-ek kopeta belztuz.

«Bridge joko markagailuak» esan zuen Janetta-k, «kartoizko kutxatila batean sartuak. Tapa gainean lelokeria hau zegoen grabatuta: urrezko ezpatarekin zoriona industen. Ikusi nuen une berean zera esan nion neure buruari: Flopinson-darrak, eta saltzaileari: Zenbat da? Berak, begiratu eta: Bederatzi penike. Flopinson-darren helbidea eman nion saltzaileari, txartel baten zer-bait idatzi, hamar edo hamaika penike ordaindu guztiarengatik eta Jainkoari eskerrak eman niz-

kion. Egizaletasun gutxi eta hainbat arazo gutxiagorekin eskertu didate».

«Flopinson-darrek ez dute bridge-an jokatzeko» esan zuen Egbert-ek.

«Batek ezin ditu horrelako giza xehetasunak jakin» esan zuen Janetta-k. «Ez litzateke xaloa izango. Gainera zein zailtasun izango zuketen beraiek, guk «Guillermo hitz ederrekoa» atsegin bezala irakurriko ote genukeen jakiteko? Beraiek gutaz dakitenez edo guri axola zaigula dakitenez, poesiaz dakigun guztia

John Masefiel-ekin bukatzen delako ustean egongo dira, bestela balitz «Guillermo hitz ederrekoaren» esanak egun osoz gure inguruan edukitzeak, haserrea edo tristura sortu beharko ligukete».

«Ondo da, jarrai dezagun eskertza gutuna idazten» esan zuen Egbert-ek.

«Jarrai dezagun bada» esan zuen Janetta-k.

«Oso argiak izan zarete «Guillermo hitz ederrekoa» gure poeta begikoena dela asmatzen» esan zion Egbert-ek.

Berrito ere Janetta-k boligrafoa bertan behar utzi zuen.



«Ohartzen al zara horrek zer esan nahi duen? galdetu zuen. «Guillermo hitz ederrekoaren» orri fardel bat hurrengo gabonetan eta beste egutegi bat bi arte barruko gabonetan, eta berriro ere eskertza egoki bat idatzi behar izateko arazoa gainean. Ez, egutegiari buruz ezertxo ere ez idaztea izango da hoberena eta ordeztu beste zenbait topikotara jotzea».

«Zein beste topiko?».

«Ene, horrelako zerbait esate baterako: Zer pentsatzen duzue Urte Berriko ohorezko zerrendari buruz? Gure lagun batek ohar zorrotz bat egin zuen irakurri zuenean. Gogora etortzen zai-zun edozein komentario egin zenezake; ez du zorrotza izan beharrik. Flopinson-darrek ez dute jakingo horrela den ala ez».

«Ez dakigu politikan zein alderditan dauden ere» ihardetsi zuen Egbert-ek, «eta horrez gain ez dugu bat-batean egutegiari buruz zerbait esatea ahaztu. Ziurrenez izango da egin genezakeen komentario burutsuren bat».

«Beno, guri ez zaigu bururatzen» esan zuen Janetta-k nekez; «Hain zuzen ere gu ez bagina bezala ari gara idazten. Arraioa! Stephen Lud-

berry andrea gogoratu dut bat-batean. Bidali ziguna eskertzeko ez diogu idatzi».

«Zer bidali zigun?».

«Ahaztu zait; Egutegia zelakoan nengoen».

Isiltasun luze bat egon zen, esperantzarik gabe eta zegoenez kontu izatetik utzi dutenen etsipenezko isiltasuna.

Handik une batetara Egbert erabakiz beterik eseri zen. Gatazka adierazten zuen distira zuen begietan.

«Idazteko mahaian esertzen utz iezadazu» esan zuen.

«Gogo onez» esan zuen Janetta-k. «Nori idatzi behar diozu, Ludberry andreari ala Flopinson-darrei?»

«Ez bati eta ez besteei» esan zuen Egbert-ek idazteko orri meta bat bere ondoan ipiniaz; «Erreinuko itzal handiko egunkari ilustratu guztietako editoreei idaztera noa. Gabon eta Urte Berri ospakizunetan Jainkoaren epistolaren jarraitzean eten bat egon behar lukeela iradoki behar diet. Abenduaren hogeita lautik Urtarrilaren hiru edo laura arte, zentzugabekeria eta sentimendu eza da, egoerak eskatzen duen hitz

komenigarriz beterik ez dagoen gutun bat idatzi edo jasotzea. Gonbidapenei erantzunak, trenen ordutegiei buruzko konponketak, club-etako harpidetza berriztapenak, eta noski nola ez, eguneroko negozio konponketa arruntak, gaixotasunak, sukaldetzako errezeta berriak eta bata bestearen ondorengo gainontzeko beste guztiak, galarazi ezinak bailiran hartuak izan beharko dira, gure eguneroko bizitzako zilegizko partaide gisa. Baina, ospakizun garaia dela medio, galazia egon behar luke ospakizunek benetako zentzua izateko aukera izan dezaten, borondate oneko denboraldi baketsu eta arazo gabea».

«Baina jasotako opariei nolabaiteko onarpen ezagupidea eman behar diezu», kontraesan zuen Janetta-k: «bestela nehork ez luke jakingo bere oparia ondo iritsi den ere».

«Jakina, horretaz ere pentsatu dut» esan zuen Egbert-ek, «bidaltzen diren opari guztiek txartel bat eraman beharko lukete erantsirik. Txartel horretan idatzita egon behar luke bai igorpen data eta bai bidaltzen duenaren sinadura ere, eta horrez gain Gabon eta Urte Berria dela adierazteko hieroglifiko bat. Txartelak

eranskin bat izango luke jasotzen duenaren izena eta jasotze-data jartzeko eta orduan jasotzaileak eranskinean sinatu eta data jarriko lituzke. Eskerrak eta ustekabeen harrapatu izana adieraziko luketen akordiozko hieroglifikoarekin batera, eranskina gutunazal batean sartu eta bidali».

«Benetan zoragarria eta ximplea dirudi» esan zuen Janetta-k biziki «baina jendeak oso gogortzat joko luke, oso azalekotzat».

«Ez da egungo opari sistema baino azalekoa-goa», esan zuen Egbert-ek; «Eskertza konbentzional erako hizkuntza berdina dut, Chuttle koronelak bidalitako, gogo onez dastatuko dugun whiskia eskertzeko erabiltzen dudana eta inoiz begiratuko ez dugun, Flopinson-darrek bidalitako egutegia eskertzeko erabiltzen dudana. Chuttle koronelak badaki guk ezer esan gabe bere whiskia gogo onez edango dugula eta Flopinson-darrek badakite, guk kontrakoa esango badiegu ere, bere egutegiak aspertu egiten gaituela. Beraiei bridge-markagailua gustatu ez zitzaiela guk dakigun bezalaxe, nahiz eta gure

opari ttipi xarmangarriagatik esker ona ziurtatuz idatzi. Are gehiago, koronelak badaki bat-bateko gorrotoa hartuko bagenio whiskiari edo sendagi-leak galaraziko baligu ere, bihotzezko esker on gutuna idatziko geniokeela. Beraz, ikusten duzu, egungo opariengatik eskertza sistema nik proposatzen dudan sistema bezain azaleko eta konbentzionala da, hamaika aldiz errazagoa eta xinpleagoa izatea soilik».

«Zure proposamena benetan Gabon zoriontsuen ideala izateko urratsik gertuenetakoa izango litzateke» esan zuen Janetta-k.

«Salbuespenak badaude, jakina» esan zuen Egbertek, «Eskertza gutunetan, benetako sentimenduak azaltzen saiatzen den jendearena, hain zuzen. Izeba Susan esaterako, honek zera idatzi du: «Esker mila urdaiazpikoagatik; ez du iaz bidali zenidatenak zuen bezain zapore ona, hura bera ere gorenekoa ez bazen ere. Urdaiazpikoak jadanik ez dira garai batean zirenak». Tamalgarria litzateke bere Gaboneko oharrik

gabe geratzea baina galera hau jasangarria izango litzateke gehiengoaren onerako».

«Bitartean» esan zuen Janetta-k «Zer idatzi behar diet Flopinson-darrei?».

# Debe katutako putreak

«Nolabaiteko trebetasunik ba al duzu besteak ezkontza bideetan sartzen?».

Hugo Peterby-k interes pertsonalez egin zuen galdera.

«Ez nago horretan espezializatua» esan men Clovis-ek. «Ari zarenean dibertigarria da, baina ondorioak ez dira erabat atseginak izaten, hala nola, ezkontza bidean sartzen lagundu duzun jendearen begirada gaitzesle mutuak. Norbaiti ezkutuko dozena bat akats dituen zaldi bat saldu eta bera zatiz eginiko zaldia nolakoa den ehiza saio batean ohartzen dela, zeuk ikustea bezain txarra da. Coulternebдарren neskaz ari zarela pentsatzen dut. Benetan alaia da eta nahiko neska ona dirudi, eta uste dudanez diru ederra joango da berarekin batera. Berari zerbait proposatzeko nola konponduko zaren da argi ikusten ez dudana. Ezagutzen dudan denbora osoan ezin dut gogoratu hiru minutu baino gehiagotan hitz egiteari utzi dionik. Hamaika aldiz joan beharko duzu larrera bakarrik harrapatu arte eta lortzen

duzunean zure proposamena bat-batean aurpegiatu beharko diozu berak alde egin baino lehen. Larrea belar zimelez estalia dago, baina benetan maitemindurik baldin bazaude ez dut uste holako zerbaitek geldiaraziko zaituenik.»

«Proposamenari dagokionean nahiko erraz moldatuko naizela iruditzen zait», esan zuen Hugo-k, «lau edo bost ordutan berarekin bakkarik egoteko aukera izango banu. Baina nik ez dut horretarako xarmarik, hori da arazoa. Lannerdarren mutikoa ere bere interesa azaltzen hasi da gai honetan. Bera oso-oso aberatsa da baita dotore eta trebea ere aldi berean; hain zuzen, gure ostalaria ere nabarmena lausengatua dago Lanner gurekin edukitzeagatik. Gure ostalaria, Lanner-en Betty Coulternebek-ekiko erakartasunaz ohartzen bada aukera aparta dela pentsatuko du eta bata bestearen besoetan jartzeko arituko da egun osoz eta orduan non izango da nire aukera. Nire desira bakarra Lanner Betsy-ren bidetik ahal den urrutien mantentzea da, eta, zuk lagunduko bazenit...»

«Nik Lanner herrialdetik uxatzea nahi baduzu, ezin dut zure gogoia bete. Lanner, Erromatar



aztarna direlakoak aztertzerak eta herriko erleak hezteko eta uzta biltzeko erak ikastera etorria da», esan zuen Clovis-ek. «Gainera, lehenengo egunean erretzaileen egongelan izandakoaren ondoren begitartean harturik nauka.»

«Zer gertatu zen erretzaileen egongelan?»

«Ondo hazitako gaztainondo batzuez harro-aitretzen ari zen munduko gauzarik hoberena balitz bezala eta nik inoxente esan nion, inoiz ez nuela ondo gogoratzen George II.a edo James II.a zen horiek oso gogoko zituen eta gogoeza gordeaz agurtzen nau. Aukera sortzen bada, ahal dudan guztia egingo dut zureari dagokionean, baina zeharlea izan beharko du, nirekin zerikusirik izango ez balu bezala.»

«Oso atsegina da Lanner jauna hemen edukitzea», esan zion Olston andreak Clovis-i hurrengo arratsean; «Etortzea eskatu diodan guztietan lanpetuta zegoen. Oso gizon jatorra da; neska jator batekin ezkondua egon behar luke. Gure artean, Clovis, arrazoi zehatz batengatik etorria den susmoa dut.»

«Nik ere susmo berdina dut» esan zuen Clovis-ek kopeta belztuaz; «Are gehiago, ia ziur naiz.»

«Esan nahi duzu, maitemindua dagoela...» hasi zen Olston andrea irrikiz.

«Lortuko duenagatik?» esan zuen ostalariak suminduriko ahotsez; «Zer esan nahi duzu? Oso gizon aberatsa da. Zer lortu ote nahi luke hemen?»

«Grina batek gidatzen du Lanner jauna» esan zuen Clovis-ek, «eta bada zerbait hemen, nik dakidanez, herrialdeko inon lortu ez daitekeena, ez diruaren, bidez ez maitasunez ere.»

«Baina zer? Zer esan nahi duzu? Zein da bere grina?»

«Arrautzen bilduma» esan zuen Clovis-ek. «Mundu osoan zehar ditu ordezkokoak beretzako arrautze harrigarriak lortzen, eta bere bilduma Europa osoko bitxienetakoa da; baina bere gogonahi garrantzitsuena altxorrek berak bere kasa lortzea da. Ez dirugalerek ez edonolako oztopoek ez dute etsi arazten helburu hori lortzeko.»

«Zaude ixilik! Putreak, zango-latzdun putreak!» oihukatu zuen Olston andreak; «ez

duzu ba esan nahiko haien habietara ustekabea sartuko denik?»

«Zuk, zeuk zer pentsatzen duzu?» galdetu zion Clovis-ek; «Inguru honetan putrekumeak jartzen dituztela ezagunak diren putre zango latzdun pare bakarren habia zure basoan du. Oso jende gutxik ezagutzen ditu, baina hegazti bitxi babesleen elkarteko bazkide denez informazio hau izan dezake. Trenez berarekin etorri nintzen eta bere esku liburu lodi bat sartu zuela ohartu nintzen. Liburu hori hegamotoz diren halakoi eta putreen jardueraz da.»

Clovis-ek pentsatu zuen gezurrak balio izatekotan ondo esanda izan beharko zuela.

«Ikaragarria da» esan zuen Olston andreak; «Hegazti horiei zerbait gertatuko balitzaie nire senarrak ez lidake inoiz barkatuko. Azken bi urte hauetan ikusi izan dira hegazti hauek baso hauetan, baina hau da habia egin duten lehen aldia. Zuk esan bezala, Britainia Handi osoan kumeak jartzen ari direla, ezagutzen den pare bakarra da; eta orain nire etxean dagoen gonbidatu batengatik errautsia izan behar da beraien

habia. Hori galarazteko zerbait egin behar dut. Zer deritzozu berarekin hitz egiteari?»

Clovis-ek barre egin zuen.

«Hortik zehar kontatzen den gertakizun bat bada eta nik badakit gehiengoan egia dela, orain dela gutxi eta Marmara itsasoko kostaldean gertatutakoa. Gertakizun honetan gure lagunak zerikusia izan zuen. Jakina zen, Siriar zata bat edo antzeko hegazti bat arrautzak jartzeko habia egiten ari zela Armeniar aberats baten olibondotan. Lanner jaunak Armeniar aberatsari arrautzak hartu ahal izateko diru kopuru handia eskaini bazion ere, honek jakina ez den arrazoi bategatik ez zion utzi. Egun bat edo biren ondoren Armeniar gizona hil zorian aurkitua izan zen eta bere hesiak boteak. Musulmanen erasotzat hartu izan zen gertakizuna eta horrela idatzi zen konsuladoko izkribuan, baina arrautzak Lanner jaunaren bilduman daude. Ez, ez dut uste bere borondate ona ziztatu behar zenukeenik.»

«Zerbait egin behar dut» esan zuen Olston andreak begiak malkoz beterik; «Noruegara joan aurretik nire senarrak esan zuen azken hitza hegaztiei inolaz ere ez molestatzeko agindua

izan zen, eta beraiei buruz galdetu du idatzi duen bakoitzean. Asma ezazu zerbait.»

«Hesitzea idorotzera nindoan oraintxe bertan» esan zuen Clovis-ek.

Hesitzea! Hegaztien inguruan begiraleak jartzeari esan nahi duzu?»

«Ez, Lanner jaunaren inguruan. Berak gauez ez dezake baso hauetan zehar biderik aurkitu eta zuk konpondu dezakezu zu, Evelyn, Jack edo Alemaniar andereñoa berarekin egotea egunez. Ezingo ditu etxeko guztiak gainera kendu eta gainera bildumazale kaskagogorrenarentzat ere oso zaila izango da debekatutako putreen bila tontorrera igotzea Alemaniar andereño bat bere inguruan badarabilki egun osoan, ekin diezaiozun bada.»

Lanner, Coulterne-en neskarekin bakarka hamar minutu egoteko aukerarik ere ez zuela konturatu zen. Neska noizbait bakarrik bazegoen ere bera inoiz ere ez zegoen bakarrik. Bere ostalaria bat-batean aldatu zen, berari zegokionean behintzat, hasera batean gonbidatuei bere kasa ibiltzen uzten zien eta orain beste guztiak bereganatu bultzatzen zituen. Belar lorategia eta etxe-

ko berdeak erakutsi zizkion, herriko eliza, bere apezak Korsika-n egindako zenbait akuarela eta urte baten ondoren apioa non sortzea espero zen. Aylesbury-ko ahatetxo itsusiak erakutsi zizkion eta erle gaixotasunak erasotzen ez bazituzten erleak egongo ziren baso erlategi ilarak baita ere. Eta ostalariak betebeharren bat zuenean, Evelyn zegoen bere ondoan nagusitasunez paseatzen. Evelyn-ek hamalau urte zituen eta batipat ondo zegoenaz eta gaizki zegoenaz hitz egiten zuen eta bakoitzak munduaren onerako egin behar zuenaz, ahal zen onena zorrotz erabakiz gero. Atsedean bat izan ohi zen bere ordean Jack etortzen zenean, honek bederatzi urte zituen eta Balkanetako gerrateaz hitz egiten zuen etengabe, politika edo militar historiaz ezer erantsi gabe. Alemaniar andereñoak Schiller-etaz hitz egiten zion, Lanner-ek inori buruz inoiz entzun zuena baino gehiago kontatuaz; bere errua izan zen agian andereñoari Goethe ez zitzaiola interesatzen esan baitzion. Andereñoak egin behar zenbaitzuringatik joan behar zuenean, ostalaria hantxe zegoen berriro bere ondoan inork eskatu gabeko gonbidapen batekin:

Charles James Fox gogoratzin zuen emakume baten etxetxo bisitatzera, emakumea duela hiru urte hilda zegoen baina etxetxoak irauten zuen. Hasiera batean Lanner, hirira itzularazteko deitua izan zen.

Hugok ez zuen Betty Coulternek-ekiko ezer lortu. Neska ukatu zelako edo gehienek uste duten bezala, Hugok ez zuelako hiru hitz segidan esateko kemenik izan, inoiz ez da jakin bietatik zein izan zen arrazoia. Dena den, neskak oraindik ere, Coulternek-darren neskato alaia izaten jarraitzen du.

Putreek, bi putre gazte hezi zituzten, hauek inguruneko bizargile batek tirokatu bazituen ere.

# Oiloa

«Dora Bittholz ostegunean dator» esan zuen Sangrail andreak.

«Datorren ostegunean?» galdetu zuen Clovis-ek.

Bere amak buruarekin baietz egin zuen.

«Orain ere egin duzu, ezta?» esan zuen mutilak ahopeko irribarretxo batez. «Jane Martlet bost egun bakarrik egon da hemen, eta bera inoiz ez da hamabost egun baino gutxiago egoten, zinez astebeterako eskatzen badu ere. Inolaz ez duzu osteguna baino lehen etxetik kanpora jartzerik lortuko.»

«Zergatik egin behar nuke ba?» galdetu zuen Sangrail andreak. «Bera eta Dora adiskide onak dira, ala ez? Nik gogoratzen dudan arte, behintzat baziren.»

«Baziren, horrexek egiten die guztia garratzagoa gaur egun. Bietako bakoitzak bere altzotan sugedorri bat hazi duela sentitzen du. Norberaren altzoa suge hazitoki gisa erabilia izan dela



ohartzeak baino hobeto, ezerk ez du pertsonengan erresumin garra pizten.»

«Baina zer gertatu da ba? Norbait zitalkeriak egiten aritu al da?»

«Ez zehazki» esan zuen Clovis-ek, «oilo bat sartu zen beraien artean.»

«Oilo bat?, zein oilo?»

«Leghon brontze familiako edo arraza bitxi batetakoak zen behintzat eta Dora-k Jane-ri saldu zion diru kopuru handi xamar batez. Antzeman-go diozun bezala biak auzi horretan sartu ziren oilategi eder baten saria izango zutelako trukean, eta Jane-k pentsatu zuen bere dirua arraza ezin hobeko oilo familia handi batetan berreskuratuko zuela. Hegaztia arrautzak egiteko ohituretatik at zegoela gertatu zen eta esan zidatenez bi emakumeen arteko eskutitzak paper zati batetan ager daitezkeen hitzaldi higuigarri eta erakusgarriak ziren.»

«Zein gauza xelebrea» esan zuen Sangrail andreak. «Ezin al zuen beraien lagunak batek eztabaida konpondu?»

«Ahalegindu ziren» esan zuen Clovis-ek, «baina «Holandar Erratua»-ren musikaren ekai-

tza konposatzearen antzeko lana izan behar zuen.»

«Oso egoera latza da» esan zuen Sangrail andreak.

«Elkarri ez diotela hitz egingo uste al duzu?»

«Horrela ez bada, beraien arazoa moztea lortzean egongo da zailtasuna. Orain arte bakoitzak bestearen jardueraz eta izateari buruzko irazketak gertu bizi arren, penike baten truke postaz bidaliak izan dira.»

«Ezin dut Dora kanpoan utzi» esan zuen Sangrail andreak. «Bere bisitaldia behin atzeratu nuen eta mirari antzeko batek ere ez luke Jane bidaliko berak aukeratutako hamabostaldia amaitu arte.»

«Ez dut mirarietan sinesten» esan zuen Clovis-ek. «Ez dut oso itxaropentsua izan nahi egoera honetan, baina ahal dudan guztia egingo dut.»

«Ni bertan sartzen ez nauzun bitartean» amaitu zuen bere amak.

«Zerbitzariak gogaikarri xamarrak dira» marmarikatu zuen Clovis-ek bazkal ondoren erretzailen gelan esertzen zenean, boladaka Jane Mar-

tlet-i hitz egiten zion, cocktailarentzat behar zituen edari ezberdinak elkarrekin jartzen zituen bitartean hitz egiten zion eta hartan lotsagabe-keriaz Ella Wheeler Wilcox izendatu zuen. Alde batetik Brandy zaharrez eratua zegoen, baita curaçaoz ere, beste nahasgai batzuk ere bazituen, baina hauek inoiz ez zizkion inori azaltzen.

«Zerbitzariak gogaikarriak» oihukatu zuen Jane-k, hegazti ehiztari batek airea utzi eta bere atzaparrak zelai belarrean sartuaz lurra hartzen duenean bezala, aulkian salto bat eginaz; «Nik horixe zirela uste nuen. Nik aurten izan ditudan arazoak ezingo zenituzke ondo ulertu. Baina ez dut ulertzen zein kexa duzun zuk. Zure ama zorionekoa da benetan bere zerbitzariekin. Sturridge, esaterako, zuekin dago aspaldiko urteetan eta ziur naiz etxezainen artean eredu bat dela bera.»

«Horixe da arazoa» esan zuen Clovis-ek. «Zerbitzariak zurekin urteak daramazkitenean, orduan benetan gogaikarriak bihurtzen dira. «Gaur hemen eta bihar joana horrek», ez du axolarik, ordez beste bat jartzea nahikoa da; bene-

tako ardura gelditzen direnak eta eredu direnak dira.>>

«Baina erosotasuna ematen badizute.»

«Horrek ez dio arazoak ekartzea galarazten. Sturridge aipatu duzula eta; hain zuzen ere bertaz ari bainintzen pentsatzen zerbitzariak gogai-karriak direla esan dudanean.»

«Sturridge bikaina gogaikarria! Ezin dut sine-tsi.»

«Badakit bikaina dela, eta ezingo ginateke bera gabe konpondu; elementu fidagarri bakarra da ustegabeko etxalde honetan. Baina bere araubide zehatzak eragina izan du beregan. Inoiz pentsatu al duzu zer izan daitekeen zure bizitzaren zati handiengan, etengabe gauza egokia, era egokian egitea inguru berdinean? Zehazki zein zilar, beira ontziteri eta mahai oihal erabili behar diren jakin, hautatu, gainbegiratu eta egoera bakoitzera egokitu. Sotoa, jakitegia eta plater armairua zehazki antolatua edukitzea etengabeko administrazio bidez. Isila nabari ezina eta nonahikoa izan eta dagokizun arterai-no orojakituna?»

Erotuko nintzateke» esan zuen Jane-k sines-  
tez.

«Horixe» esan zuen Clovis-ek pentsakor,  
bere Ella Wheeler Wilcox osoa irentsiz.

«Baina Sturridge ez da erotu» esan zuen  
Jane-k bere ahotsean kizkurdura zuelarik.

«Atal gehienetan osasuntsu eta fidagarria da  
erabat» esan zuen Clovis-ek, «baina zenbaitzue-  
tan amarru setatsuenen biktima da eta gertaldi  
horietan ez da gogaikari bihurtzen, eragozpen  
hutsa baizik.»

«Zein amarru mota?»

«Zoritxarrez orokorrean etxeko festetako  
gonbidatu baten ingurunean izaten da, eta hor  
izaten dira zailtasunak. Esate baterako, Matilda  
Sheringham Prophet Elijah zela sartu zitzaion  
buruan eta Elijah-i buruz gogoratzen zuen guztia  
belea basamortuan zegoeneko atala zen. Matil-  
da zaindu eta bazkatzeari uko egin zion, ez zuen  
goizean Matildari tea igotzen uzten eta Matildari  
mahaian itxaroten bazegoen, Sturridge-k plate-  
rak Matildaren aurretik pasatzen zituen Matilda  
ez balego bezala.»

«Zein egoera jasangaitza. Zer egin zenuen?»

«O, Matilda erabat nazkatu zen eta erabaki genuen eta beretzat hoberena bisitaldia moztea zela. Benetan egin zitekeen gauza bakarra zen», esan zuen Clovis-ek bizi-bizi.

«Nik ez nukeen hori egingo» esan zuen Jane-k. «Nik nolabait bere jolasa jarraituko nukeen. Benetan nik ez nukeen alde egingo.»

Clovis-ek begitartea uzurtu zuen.

«Ez da beti zuhurra jendearen jolasa jarraitzea horrelako burutazioak dituztenean. Ezin da jakin noraino joan daitezkeen haserre bidean jartzan badituzu.»

«Ez duzu esan nahiko Sturridge arriskutsua izan daitekeenik, ez da?» galdetu zuen Jane-k antsiatz.

«Ezin asmatu» esan zuen Clovis-ek; orain eta orduan berak gonbidaturen bati buruz ideia bat hartzen du eta ideia horrek zoritxarreko txandaren bat har dezake. Horrexek kezkatzen nau ni orain.»

«Zer, hemen dagoen norbaitetaz fantasiaren bat al du orain?» galdetu zuen Jane-k asaldaturik. «Zein ikaragarria. Esaidazu nor den.» «Zu» esan zuen Clovis-ek indarrez. «Ni».

Clovis-ek buruarekin baieztatu zuen.

«Eta nor demontre naizela uste du?»

«Ana Erregina» izan zen espero ez zen erantzuna. «Ana Erregina! Hara zer nolako burutazioa. Baina dena den, ez dago ezer arriskutsurik beragan, nahiko koloregabeko nortasuna da.»

«Zer dio gerokoak guztiaren gainetik Ana Erreginari buruz?» galdetu zuen Clovis-ek zorrotz.

«Berataz gogora dezakedan gauza bakarra» esan zuen Jane-k. «*Ana Erregina hilda dago* dioen esana da».

«Horixe da» esan zuen Clovis-ek, Ella Wheeler

Wilcox eduki zuen edalontziari arretaz begiraturaz. «Hilda».

«Ana Erreginaren fantasma edo mamutzat hartzen nauela esan nahi duzu?» galdetu zuen Jane-k.

Mamua? ez. Inork ez du inoiz gosaltzera jaitsi eta gose osasuntsuz babarrunak eta ogitxigorrak eztiarekin jaten dituen mamuez ezer entzun. Ez, zu biziagi egotea eta distiratsuegi izateak nahastu eta haserretzen du bera, bere bizitza osoan

ezer entzun Ana Erregina hilda dagoen guztiaren pertsonifikazioa bezala begiratzera ohitua dago, eta dakizun bezala «Ana Erregina bezain hila» esanari jarraitzera; eta orain zure edalontzia bete behar du bazkal eta afal orduetan eta zure kondairak entzun behar ditu Dublineko zaldi erakusketaz eta noski zugan oso oker dagoen zer-bait nabari du.»

«Baina ez da erabat kontrakoa izan nirekin kontakizun horietan ezta?» galdetu zuen Jane-k irrika bizi.

«Ez naiz benetan larritu gaurko bazkalordura arte» esan zuen Clovis-ek; «begirada gaizto batez zuri begira harrapatu dut eta marmarka zera zioen: *Hilda egon behar luke aspaldidanik, hala izan behar luke, eta norbaitek esan beharko lioke*. Horregatik aipatu dizut arazoa.»

«Izugarria da» esan zuen Jane-k; «zure amari esan beharko litzaioke behingoz».

«Nire amak ez du hitzik ere jakin behar hone-taz» esan zuen Clovis-ek zinez; «erabat tristatu-ko luke. Berak konfidantza osoa du Sturridge-rengan.»



«Baina berak edozein unetan hil nazake» kontrajarri zuen Anak.

«Ez edozein unetan, zilarrarekin oso lanpetua dago gaur arratsaldean.»

«Begirada zorrotza mantendu beharko duzu denbora guztian eta prest egon edozein hiltzaile-  
ren eraso bertan behera uzteko» esan zuen Jane-  
k doinu setati eta ahul batez. «Bertan egoteko  
egoera izugarria da, zerbitzari ero bat nire ingu-  
ruan kulunka, zein-da-zure-kena jokoan ezpata  
buru gainean edukitzea bezala izanaz, baina  
zinez diot ez dudala nire bisitaldia moztuko.»

Clovis barnetik juramenduka ari zen: argi  
zegoen miraria hutsean geratu zela.

Hurrengo goizean beranduko gosari baten  
ondoren, egon gelan eduki zuen azken inspira-  
zioa.

«Non dago Marlet andereñoa?» galdetu zion  
egongela zeharkatzen ari zen zerbitzariari.

«Goizeko gelan eskutitzak idazten, jauna»  
esan zuen Sturridge-k, alde zuzenetik galdegileak  
bazekiena ziurtatuaz.»

«Aintzinako ezpata horren inskripzioa kopia-  
tu nahi du» esan zuen Clovis-ek, paretean zintzi-

lik zegoen arma agurgarria seinatuaz. «Zuk eramatea nahi nuke, eskuak koipezturik baititut. Eramaiozu zorrerik gabe, erosoagoa izango da eta.»

Zerbitzariak oraindik antzinatik ondo zaindua zegoen ezpata zorrotz eta distiratsua hartu eta goizeko gelara eraman zuen. Ate bat zegoen atzeko eskaileren aurrean zegoen idazteko mahaiaren ondoan. Jane, eskailera haietatik hain bizkortasun arinez desagertu zenez, zerbitzariak zalantzan jarri zuen Jane-k bera sartzen ikusi ote zuen. Ordu erdi beranduago Clovis, Jane kotxez eta presaka egindako ekipaia geltokirantz gidatzen zuen.

«Ama erabat haserretuko da zaldiz ibiltzetik itzultzen denean eta joan zarela ikusten duenean» esan zion bazihoan gonbidatuari, «baina joatera behartzen zaituen deialdi larriren bati buruz istorioren bat asmatuko dut. Ez da beharrezkoa Sturridge-ri buruz ama asaldatzea».

Jane-k sudurra zertxobait uzkuritu zuen, Clovis-en asalda ez behararren ideagatik eta nahiko garratza izan zen bazkal otartxoaz galdezka etorri zen gizon gaztearekin.

Mirariak bere beharrezkotasuna galdu zuen nolabait Dora-k egun berean bere bisitaren data, Clovis-ek du lehen marka. Martlet-ek egunaren ordutegia aurrerarazi duen pertsona bakarra izatearen marka.

# Arrautzopil bizantiarra

Sophie Chattel-Monkheim sinesmenez sozialista eta ezkontzaz Chattel-Monkheim bat zen. Sophie familia aberats honetako partaide aberats batekin ezkondu zen. Sophie-k oso ikuspegi aurrerakoi eta tinkoak zituen diruaren banaketari zegokionean: Atsegina eta zorte handiko egoera zen ikuspegiaz gain, dirua ere edukitzea. Egongelako bileretan eta Fabian-en hitzaldietan, Sophie-k kapitalismoaren eta honen desberdintasun eta gaiztakeriaren kontrako hitz jario maltzurak botatzen zituenean, ziurrenez bere denbora alferrik galtzen zuen. Erdi Aroko erreformatzaileen kontsolamenduetako bat da, beraiek erakutsitako onak nolabait iraun behar badu, beraien ondoren ere iraun beharko duela.

Udaberriko arrats batetan, afal ondoren nonbait, Sophie patxadaz eseri zen bere ispilu eta zerbitzariaren artean, honek egiten zion modazko orrazkera korapilatsua ikustatzeko. Bake atsegina batekin inguratzen zuen, baten ahalegin eta iraunkortasunez lor eta desira daitekeen

bakea, eta lorpen horretan oraindik ere desiragarria sentitzen dena. Siriako Dukeak bere teilapera gonbidatu gisa etortzea onartu zuen, are gehiago, oraintxe bere teilapean ostatuta zegoen eta denbora epe batez bere mahaian eserikozen afaltzera. Benetako Sozialista bezala, Sophie-k ez zituen gizarte maila desberdintasunak onartzen eta kasta bikainari buruzko ideiei iseka egiten zien, baina kategoria eta duintasun mailaketa artifiziala izanik, oso pozik eta aztoratuta zegoen bere festan horrenbeste goraipatutako gizona edukitzearekin. Sophie aski jasankorra zen bekatua gorrotatuz, aldi berean maitatzeko. Berak ez zuen Siriako Dukearekiko sentimendu goxorik edo hunkipen pertsonalik, azken hau arrotza baitzen beretzako, baina Siriako Duke bezala oso ongi etorria zen bere teilapera. Ezin zuen zergatia azaldu, baina ez eta galdetuko zion inor egongo ere, eta gonbidatzaile gehienek bekoizten zuten.

«Gainezkatu behar zara gaurkoan, Richardson» esan zion ederretsiz Sophie-k zerbitzariari; «Inoiz baino ederragoa egon behar dut. Guztiok gainezkatu behar gara gaurkoan.»

Zerbitzariak ez zuen ezer esan, baina bere begirada kontzertatua eta bere behatzen joko trebean erantzuna begi bistakoa zen, Sophie betetzen zuen anbizioa, bere itxura gaineztatzea zen.

Atea jo zuten, isila baina agintezkoa zen ate jotzea, ezetza onartuko ez zukeen norbaitena.

«Joan eta begira ezazu nor den» esan zuen Sophie-k; «ardoarekin zerikusia duen zerbaitez izan behar du.»

Richardson-ek presazko elkarrizketa bat izan zuen atean zegoen mezulari ikusezin batekin; Sophie jiratu zenean nagikeria nabarmen bat zegoen orain arteko jokaera biziaren ordean.

«Zer da?», galdetu zuen Sophie-k.

«Etxeko zerbitzariak lanuzte aldian daude andrea» esan zuen Richardson-ek.

«Lanuzte aldian» oihukatu zuen Sophie-k «greban daudela esan nahi al duzu?»

«Bai andrea» esan zuen Richardson-ek informazioari zera erantsiaz: «Gaspere-ri buruzko arazoa da.»

«Gaspere? esan zuen Sophie-k harrিতuta; «larrialdiko zerbitzari! Arrautzopilgile berezia!»

«Bai, andrea. Arrautzopilgile berezi bihurtu aurretik gelazain pertsonala izan zen Lord Grimford-en etxean egindako greba nagusiko eragileetako bat. Etxeko zerbitzari taldeak, bera kontratatu zenuela jakin zuen bezain laster, protesta gisa lanuzte aldian jartzea erabaki zuten. Ez dute zure aurkako kexarik, baina Gaspare berehala kaleratzea eskatzen dute.»

«Baina» kontrajarri zuen Sophie-k, «bera da Ingalaterra osoan Bizantiar arrautzopila nola egin ulertzen duen gizon bakarra. Siriako Dukearen bisitaldirako kontratatu dut bereziki, eta epe motzean bere ordezkorik aurkitzea ezinezkoa litzateke. Pariseraino joan beharko nuke eta Duke Siriarrak Bizantiar arrautzopilak maite ditu. Geltokitik etortzerakoan aipatu genuen gauza izan zen.»

«Lord Grimford-en etxeko greba eragileetako bat izan zen» errepikatu zuen Richardson-ek. «Hinguingarriegia da» esan zuen Sophie-k «hone-lako une batetan zerbitzari greba bat, Siriako Dukea etxean dugularik. Zerbait egin behar da berehala. Bukatu nire ilearekin eta joan eta ara-

zoa konpontzeko zer egin dezakedan ikusiko dut.»

«Ezin dut zure orrazkera bukatu, andrea» esan zuen Richardson-ek lasai baina tinko. «Zerbitzari elkarteko partaidea naiz eta ezin dut minutu erdi bakar bateko lanik egin greba konpontzen ez den bitartean. Sentitzen dut gogaikarria izatea.»

«Baina hau gizagabekoa da!» oihukatu zuen doinu tragikoan; «ni beti izan naiz ereduzko gonbidatzailea eta inoiz ez dut zerbitzari elkartekoa ez den inor kontratatu eta hona hemen ondorioa. Ezin dut nire orrazkera bakarrik bukatu; ez dakit nola egiten den. Zer egin dezaket. Hau makurkeria.»

«Makurkeria da bai hitza» esan zuen Richardson-ek; «ni kontserbatzaile zuzena naiz eta zure barkamenarekin ez dut Sozialisten zuntzunkeriarekin pazientziarik. Tirania bat, bai horixe da, zuzen zuzenean, baina nik nire bizitza bideratu behar dut, beste askok bezala, eta elkartekoa izan behar dut. Ezingo nizuke beste ileorratz bat ukitu greba baimen bat gabe ez eta lansaria bikoiztuko bazenit ere.»



Atea eztanda eginaz ireki zen eta Catherine Malsoin amorru bizian sartu zen gelan.

«Oso egoera ederra» garrasi egin zuen «aldez aurreko oharrik gabeko zerbitzari eta horrela utzi naute! Ezin naiz egoera honetan jende aurrean azaldu.»

Begirada lehiatsu baten ondorioz Sophie-k ziurtatu zion egiazki ezin zela horrela inoren aurrean azaldu.

«Denak al daude greban?» galdetu zion bere zerbitzariari.

«Sukaldekoak ezik» esan zuen Richardson-ek «beraiek elkarte desberdin batetakoak dira.»

«Afaria behintzat ziurtatua dugu» esan zuen Sophie-k «eskertu beharrekoa da.»

«Afaria» garrasi egin zuen Catherine-k «zer demontre da afariari buruz eskertu behar dena, gutariko inork azaltzerik izango ez badu? Begira iezaiozu zeure ileari eta begira nazazu ni!, edo hobe ez ezazu egin.»

«Badakit zerbitzaririk gabe konpontzea zaila dela: zure senarrak ezin al zaitu lagundu?» galdetu zion Sophie-k etsirik.

«Henry-k? Bera gutariko edozein baino okerrago dago. Henry-k leku guztietara berarekin eramaten duen Turkiar bainatzeko tresna xelege hori benetan uler dezakeen pertsona bakarrebere zerbitzaria da.»

«Baina ziurrenez arratsalde batengatik Turkiar bainu gabe pasa daiteke», esan zuen Sophie-k. «Ni ezin naiz ilerik gabe azaldu, baina Turkiar bainua luxu bat da.»

«Nire andre leial hori», esan zuen Catherine-k izugarrizko indarrez hitz eginez, «Henry bainuontzi barruan zegoen greba hasi denean. Barruan, ulertzen al duzu? Oraintxe han dago.» «Ezin al du irten?»

«Berak ez daki nola. Sakatu dion palanka bultzatzen duen bakoitzean lurrun beroa bakarrik askatzen da. Bi lurrun mota daude bainuan jasangarria eta eskaski jasangarria; biei bultzadie. Dagoeneko beharbada alarguna naiz.»

«Nik ezin dut ba Gaspare kaleratu» arranguratu zen Sophie, «inoiz ez dut beste arrautzopilgile onik lortzerik izango.»

«Nik beste senar batlortzeko izango ditudan zailtasunak huskeria dira horren aurrean», esan zuen Catherine-k sumindurik.

Sophie-k amore eman zuen «Zoaz» esan zion Richardson-i «esan greba elkarteari edo arazo honetan buruzagi denari, Gaspare kaleratua dagoela. Eta eska iezaiozu Gaspare-ri nirekin hitz egiteko liburutegira etortzera, dagokiona ordainduko diot eta ahal ditudan aitzakiak asma-tuko dizkiot; orduan etorri berehala eta nire orrazkera amaitu ezazu.»

Ordu erdi batzuk beranduago Egongela nagusian

Sophie-k bere gonbidatuak afalgelarako lerro formalean manatu zituen.

Henry Malsom-ek, zenbaitzuetan atez barrura batek ikus dezakeen giza itxuraren antzerki errepresentaketaren tankerako marrubi heldu kolorea zuen. Honez gain, bazeuden kanpo seinale txiki batzuk, jasan eta gainditu berria zuten krisialdiaren ondorioz eraikitakoak. Honek iraun zuen bitartean tentsioa arras izugarria izan zen bere ondoren, barruan eraginik ez uzteko. Sophie adurrean aritu zen bere gonbidatu agurga-

rriei hizketan, eta bere begiak gero eta sarriago harrapatu zituen sukaldeko aterantz begira, ate horretatik etorriko baitzen afaria zerbitzatu zegoela esango zuen mezu bedeinkatua. Behin eta berriro begiratu zion ispiluan zegoen bere orrazkera zoragarria-isladapenari, urakan suntsitzaile baten aurretik kaian gorderiko ontzi bati aseguratzaile batek esker onez begiratuko liokeen bezalaxe. Gauzak horrela, atepak, ireki eta ongi etorria zen etxezaina sartu zen gelara. Baina ez zuen prest zegoen afari eder baten iragarkia egin, eta atepak bere atzetik itxi egin ziren; bere mezua Sophie-rentzat bakarrik zen.

«Ez dago afaririk, andrea» esan zuen serio-serio «sukaldeko langileak lanuzte aldian daude. Gaspare sukaldari elkartekoa da eta sukaldeko langileak kaleraketaz jakin duten bezain laster lana utzi dute. Berriro eta berehala Gaspare lanean onartzea eta elkarteari barkamena eskatzea eskatzen dute. Honi erantsi behar diot, andrea, beraiek oso tinko daudela; mahai gainean jadanik prest zeuden ogitartekoak.»

Hemezortzi hilabetetako denborartearen ondoren Sophie Chatel-Monkheim berriro hasi

da bere ohizko lekuetara eta elkarteetara joaten, baina oraindik ere oso arretatsua izan behar da. Sendagileek ez diote narritatzailea gerta dakiokeen ezeren partaide izaten uzten, hala nola egongelako bilerak edo Fabian-en hitzaldiak; are gehiago, zalantzan jartzekoa da oraindik berak egiten duen edozer.